

IRAGARKIA

149. ALDIZKARIA - 2026ko uztailaren 31

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA LESAKA

Oposizio-lehiaketa, erizain plaza bat betetzeko Andra Mari egoitzan. Izendapen-proposamena

Lesakako Andra Mari egoitzako Batzarrak 2025eko irailaren 22an harturiko erabaki baten bidez, deialdi bat eta haren oinarriak onetsi zituen, erizain plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, lan-kontratudun finkoaren araubidean.

Deialdia 2026ko 36. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, otsailaren 19an.

Hautaprobak bukatutik, epaimahaiak izendapen-proposamena igorri dio Alkatetzari puntuaziorik handiena eskuratu duen izangaiaren alde: Sonia Taberna Iribarren.

Deialdiaren 12. oinarriari jarraituz, izendapen-proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdian ezarritako betekizunak eta baldintzak betetzen dituela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu proposatutako izangaiak Lesakako Udalaren erregistro orokorrean; zehazki, honako hauek:

- a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta identitatea frogatzen dituen beste agiri baliokideren batena.
- b) Tituluaren jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela erakusten duen ordainagiria.
- c) Euskara jakitearen frogagiria.
- d) Medikuen Elkargo Ofizialak emandako osasun ziurtagiri ofiziala, erakusten duena ez duela akats fisiko nahiz psikikorik edo eritasunik erizainaren eginkizunak betetzea eragozten dionik.
- e) Zinpeko deklarazioa, adierazten duena ez dagoela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua eta ez dela kendua izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik.
- f) Zin egitea edo hitzmatea Nafarroako Foru Eraentza begiratuko duela, Konstituzioari eta legeei men egiten diela eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

Lesakan, 2026ko uztailaren 14an.—Alkatea, Ladis Satrustegui Alzugaray.

Iragarkiaren kodea: L2609870